



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2019ko EKAINAREN 15ean EGINIKO ERAKETA BILKURAREN AKTA

Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, 2019ko ekainaren 15ean, eguerdiko 12.00 etan, Maiatzaren 26an eginiko hauteskundeetan hautatuak izan ziren ondoko zinegotziak elkartu dira:

ASTEASU BATUZ (AB)

Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA
Jose Ramon AYERZA SARASUA
Larraitz ALKORTA AIZPURUA
Joseba TXAPARTEGI NIEVE
Maria Pilar ITURBE URDANGARIN
Aitor USANDIZAGA IZAGIRRE
Unai OTEGUI IRAZUSTA

EUZKO ALDERDI JELTZALEA – PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ-PNV)

Joseba GOMEZ SARASUA
Luke URIBE-ETXEBARRIA APALATEGUI

Bertan dago, egintzaz fede emateko, Jon GIL BELTZA bitarteko idazkaria.

Bitarteko idazkari jaunak jakinarazi du, Bilkura honen helburua dela Udalbatza eratzea, 2019ko maiatzaren 26an herriko hauteskundeetan izandako emaitzen arabera, betiere Hauteskunde Orokorreko Araubideari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.1 artikulua agintzen duenari jarraiki eta Toki Udalbatzen Antolaketa eta Funtzionamenduko Erregelamenduaren 37.1 artikulua arabera. Gai Zerrenda ondorengoa izanik:

- Udalbatzaren eraketa.
- Alkatearen hautaketa eta jabetza hartzea, hala badagokio.

Aurrez, bitarteko idazkariak adierazi du indarreko legeriari jarraiki zinegotzi hautetsi guztiek aitortu dituztela bateraezintasun-arrazoiak izan daitezkeenak eta ondasun eta jarduerak.

Bitarteko idazkariak adierazi du Toki Korporazioen Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Araudiaren 36.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki, neurriak hartu dituztela kutzako kontaketa egiteko eta Udalaren eskudiruzko izakinen eta balioen frogagiriak

prest daudela espedientean. Udal Ondasunen Inbentarioari dagokionez, eguneraketari buruzko berri ematen du, esanez ezin izan direla lanak bukatu oraindik Idazkaritzan egon den lan-karga dela eta, eta adieraziz oraindik ez dagoela Plenoz onartuta.

Jarraian, Adin-mahaia osatu dute, Hauteskunde Orokorreko Araubideari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.2 artikulua aurreikusten duena. Mahaia hautaturiko zinegotzi zaharrena den Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA andreak eta zinegotzi gazteena den Unai OTEGUI IRAZUSTA jaunak osatu dute. Idazkari lanetan Jon GIL BELTZA jaunak jardun du, hots, bilkurakoak ere denak.

Mahaiburuak bilkura hasitzat eman du.

Mahaiko idazkariak irakurri ditu aldez aurretik emandako egiaztagiri guztiak, hau da, hautaturiko zinegotzien nortasun egiaztagiriak, eta mahaikideek Zonalde honetako Hauteskunde Batzordeak bere garaian Udalera igorritako ziurtagiriekin frogatu eta ondo daudela adierazi dute.

Jarraian, Idazkariak Hauteskunde Orokorreko Lege Organikoaren 108.8 artikuluan xedatutakoaren arabera, euskaraz zinegotziei ondorengo galdera egin die: “Zin egiten duzue edo hitz ematen al duzue ohorez eta kontzientziaz, Asteasuko Udaleko zinegotzi karguak dakarzkizuen betebeharrak zintzo beteko dituzuela Erregearekiko leialtasunez eta Konstituzioa eta Euskadiko Autonomi Estatutua Estatuko oinarritzko arau gisa errespetatu eta errespetaraziko duzuela?”.

Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA andreak, Jose Ramon AYERZA SARASUA jaunak, Larraitz ALKORTA AIZPURUA andreak, Joseba TXAPARTEGI NIEVE jaunak, Maria Pilar ITURBE URDANGARIN ANDREAK, Aitor USANDIZAGA IZAGIRRE jaunak, Unai OTEGUI IRAZUSTA jaunak, Joseba GOMEZ SARASUA jaunak, eta Luke URIBE-ETXEBARRIA APALATEGUI jaunak “Bai, legeak hala aginduta” erantzuna eman dute.

Jarraian, hautaturiko 9 zinegotziak bilkurara etorri direnez, Udalbatza eratua dagoela aitortu da.

Hauteskunde-araubide Orokorren 5/1985 Lege Organikoaren, ekainaren 19koaren, 196 artikulua agintzen duenari jarraiki, Udalbatza eratzeko osoko bilkura berean alkatea hautatu behar da, aipatutako aginduak finkatzen duen prozeduraren arabera. Alegia:

- a) Zerrendaburu diren zinegotzi guztiak izan daitezke alkategai.
- b) Horietako bateren batek gehiengo osoaren botoak erdiesten baditu (gutxienez bost boto, hain zuzen ere) zuzenean izendatua izango da.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

- c) Eta horietako bakar batek ere ez baditu lortzen gehiengo osoaren botoak, orduan, herrian botorik gehien erdietsi duen zerrendaburua izango da Alkate.
- d) Bototan berdinketa emango balitz, zozketa egingo litzateke.

Adin-mahaiak taldeei galdera egin die, eta EAJ/PNV taldeak uko egin dio alkatetzarako hautagaia aurkezteari.

Ondorengo hautagaia izan da izendatua:

- Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA (AB)

Ondoren Zinegotzi guztiak beren botua esku altxatuta eman dute, emaitza ondorengo hau izan delarik:

Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA (AB) hautagaia: 7 botu (Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA andrea, Jose Ramon AYERZA SARASUA jauna, Larraitz ALKORTA AIZPURUA andrea, Joseba TXAPARTEGI NIEVE jauna, Maria Pilar ITURBE URDANGARIN andrea, Aitor USANDIZAGA IZAGIRRE jauna, Unai OTEGUI IRAZUSTA jauna); EAJ/PNV taldeko bi zinegotziak, Joseba GOMEZ SARASUA jauna eta Luke URIBE-ETXEBARRIA APALATEGUI jauna, abstenitu egin dira.

Bozketaren arabera, gehiengo osoa lortu duenez, Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA andrea Asteasuko Udaleko alkate andrea izendatu da.

Bitarteko Idazkariak, Hauteskunde Orokorreko Lege Organikoaren 108.8 artikuluan xedatutakoaren arabera, galdera hau egin dio euskaraz alkate andreari: “Zin egiten duzu edo hitz ematen al duzu ohorez eta kontzientziaz, Asteasuko Udaleko alkate andre karguak dakarzkizun betebeharrak zintzo beteko dituzula Erregearekiko leialtasunez eta Konstituzioa eta Euskadiko Autonomi Estatutua Estatuko oinarrizko arau gisa errespetatu eta errespetaraziko duzula?”

Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA alkate andreak erantzun du: “Legeak hala aginduta, hitzematen dut”.

Jarraian, Bitarteko Idazkariak Udaleko Alkatetza makila eman dio Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA andreari; azken honek Alkate andrea kargua onartu du eta Alkate andrea karguaren jabetza hartzen du.

Jarraian, Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA alkate andreak hau esan du euskaraz:

“Egunon denoi eta mila esker hona bertaratzeagatik.

Batetik, eskerrik asko hautetsioi, alkatetzarako eman didazuen babesagatik eta nigan jarri duzuen konfiantzagatik.

Bestetik, Asteasu Batuz taldearen izenean, eskerrak gure aldeko hautua egin duzuen eta babesa adierazi diguzuen herritarroi ere. Jakinarazten dizuet jarrera eraikitzailea eta irekia dugula, eta herritar guztiekin batera lanean jarraitu nahi dugula.

Udala denona da eta botoa eman diguten eta ez ditugunentzako ere lana egingo dugu, gardentasunez; politika ekonomiko txukuna eta gardena egiten jarraituko dugu orain arte bezala, eta lan guztia herritarrekin batera egin nahi dugu. Beraz herritarrak udal eginkizunean parte hartzera gonbidatzen ditut, denon ongizatea bermatzeko, proiektu aurrerakoi, independentista, feminista, euskaltzalea eta guztien eskubide zibil eta politikoak bultzatuko dituen.

Baita ere gaur eskerrak luzatu nahi dizkiet legegintza amaitzen duten zinegotziei, egindako lanagatik. Mila esker

Amaitzeko, elkarlanean aritzeko eskaintza egiten dizuet udalbatza honetako hautetsiei eta herritar guztioi”

Mila esker denoi!”

Mintzaldia amaitu da.

Eta deialdiko helburua bete ondoren, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du 12:10 zirela. Nik, Bitarteko idazkariak, ziurtatzen dudana, eta bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2019ko ekainaren 15ean.

Alkate andrea

Bitarteko Idazkaria